GARDENTASUNARI BURUZKO GIDA

INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILAK ETA LORRA S. C. SOZIETATEAK 2025EAN SINATU ZUTEN HITZARMENEAN JUSTIFIKATUTAKO JARDUEREI BURUZKO TXOSTENA

TXOSTENAREN DATA: 2026KO IRAILA –

SINATZAILEA: MARTIN URIARTE ZUGAZABEITIA- LORRA S.COOP. ZUZENDARI
KUDEATZAILEAHARREMANETARAKO DATUAK: muriarte@lorra.eus TEL.: 944555063

AURKIBIDEA: Or.

1.- GARDENTASUNARI BURUZKO GIDA – FILOSOFIA 2

2.- PROIEKTUAREN IZENA 2

3.- ERAKUNDEAREN DATUAK 5

4.- LORRA S.Coop.-ren AURKEZPENA 6

5.- BFA-REKIN SINATUTAKO HITZARMENAREN KOKAPENA ETA DENBORALIZAZIOA 11

6.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILAREKIN SINATUTAKO HITZARMENAREN BABESPEAN 2025EAN EGINDAKO JARDUEREN AZALPENA 11

6.1.- ZERBITZU OROKORRAK 11

6.2.- ABELAZKUNTZAKO ZERBITZUAK 18

6.3.- UGALKETA ZERBITZUA ETA ESNEAREN KALITATE HIGIENIKOA 26

6.4.- LANDARE EKOIZPENEKO ZERBITZUAK 28

6.5. NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUA: ESKABIDEAK 33

6.6. FRUTAGINTZA EREDUAK. HITZARMENAREN GASTUAK 35

6.7. HITZARMENAREN GASTUAK ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA 35

7.- ERAKUNDE ONURADUNAK 36

8.- ERABILI DIREN BALIABIDEAK 37

8.1.- MATERIALAK 37

8.2.- GIZA BALIABIDEAK 39

9.- GASTU JUSTIFIKATURAREN ETA JASOTAKO DIRULAGUNTZAREN LABURPENA 39

10.- EDUKI EKONOMIKO FINANTZARIOA eta ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANAK 39

1.- GARDENTASUNARI BURUZKO GIDA - FILOSOFIA

19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak (19/2013 Legea, aurrerantzean) eragin handia izan zuen Administrazioen gardentasunari emandako bultzadan. Legeak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea onartu eta gardentasunaren inguruko (publizitate aktibo esaten zaiona) betebehar jakinak ezarri zituen.

Bizkaiko gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua onartu izanak (1/2016 FA, aurrerantzean), foru-erakundeek euren legezkotasuna indartzeko borondatea berretsi zuen Bizkaian, publizitate aktiboko eta arau-esparru egoki baten estandar batzuk ezarriz. Arauaren helburua da Lurralde Historikoko herritarrek Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA, aurrerantzean) eta Bizkaiko foru sektore publikoko erakundeek zer egiten duten, beraien eginkizunak nola egiten dituzten eta baliabideak nola erabiltzen dituzten jakitea. Horregatik, BFAren diru-sarrerak jasotzen dituzten erakunde pribatuei publizitate aktiboa helarazten zaie, herritarrei baliabide publikoak nola erabili eta kudeatzen diren interesatzen zaielako

Ildo berean, **2017-2019 Gardentasun Planak lurraldean gardentasuna bultzatzea ezartzen du bere ardatzetako bat gisa, lurraldeko eragile sozioekonomikoek, eta funts publikoak jasotzen dituztenek bereziki, gardentasuna beraien jarduerari atxikita dagoen baldintzatzat har dezaten**.

2.- PROIEKTUAREN IZENA

Txosten honek balio izango du jarraian adieraziko den hitzarmena eskatu izanagatik LORRA SC sozietate kooperatiboan garatu beharreko Jarduera Memoria aurkezteko:

LANKIDETZA HITZARMENA, BFA-KO INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILAREN ETA LORRA SOZIETATE KOOPERATIBOAREN ARTEKOA, ZEINAREN BIDEZ EZARRI DIREN INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILAREN AURREKONTUETAN 2025ERAKO EZARRI DEN DIRULAGUNTZA IZENDUNA APLIKATZEKO BALDINTZAK.

Hitzarmen horren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Saila bere lurralde-eremuan Abere eta Landare Osasun eta Ekoizpenean, mahastizaintzan eta enologian eskudun izanda, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2025erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauarekin bat etorriz, **750.000 €-ko** dirulaguntza izenduna ezarri zen Lorra Sociedad Cooperativa Limitada-ren alde (kontzeptua: 443.00) honela banatuta: **450.000 €** (egitaraua: 412102 – Abelazkuntza

Ekoizpena eta Abere Osasuna -,Organikoa 02.03., 2007/0625 aurrekontu-proiektua, Lorra Sociedad Cooperativa), eta **300.000 €** (egitaraua: 412103 – Landare Ekoizpena eta Osasuna-; Organikoa: 02.05.; 2007/0625 aurrekontu-proiektua, Lorra Sociedad Cooperativa).

Hori guztia, abenduaren 26ko nekazaritza-ustiategiei aholkuak emateko erakundeei buruzko 272/2006 Dekretuaren arabera, zeinaren bidez LORRA Sociedad Cooperativa-ri hura aitortu zaion, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren 2007ko azaroaren 14ko Ebazpenaren bidez.

Hitzarmenak xede du LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA erakundeari **750.000 €-ko** dirulaguntza izenduna ematea 2025eko ekitaldian, bertan jasotako jardueren aurrekontua, guztira, **1.028.271,34 €-koa** izanda. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Sailak eta LORRA SOCIEDAD COOPERATIVAk hitzartu dute dirulaguntza hori hitzarmen horren klausuletan azaldu diren eta LORRA SOCIEDAD COOPERATIVAk aurkeztutako proiektuan xedatu diren jardueren garapena diruztatzeko erabiliko dela.

Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26.1. artikuluarekin loturiko 20.2 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, **2025eko uztailaren 17an** sinatu zen hitzarmena, LORRA S.C. sozietateak hartutako konpromiso hauen arabera:

LORRA SOCIEDAD COOPERATIVAk, hitzarmen horren esparruan, jarraian zerrendatuko diren konpromisoak hartuko ditu bere gain. Konpromiso horiek erakunde onuradunak berak aurkeztutako proiektuan xehatu eta garatu dira eta hitzarmenaren eranskinean jaso. Hortxe, konpromisoak:

1.- Bizkaiko elkarteen eta Foru Aldundiaren artean lankidetza-programak garatzeko behar den informazio-sistema ezarri eta garatzea.

2.- Administrazio orokorreko zerbitzua, barne-antolaketa.

3.- Administrazio- eta informatizazio-zerbitzuak.

4.- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategietan kudeaketa tekniko-ekonomikoa sustatu, ezarri eta garatzea.

5.- Elkarteei kontabilitate-zerbitzua ematea.

6.- Aholkularitza teknikoko zerbitzua nekazaritzako proiektu eta azpiegituretan

7.- Landare Ekoizpenean garatu beharreko jarduerak.

- Elkarteak koordinatzeko zerbitzua.
- Landare Ekoizpen arloko elkarteen zerbitzu administratibo eta teknikoaren beharrak betetzea.

- Nekazaritza Politika Bateratuaren eskaerak egitea.
- Frutagintza ereduak egitea (mahaiko sagarrondoa, zitrikoak eta fruitu txikiak).

8.- Abelazkuntzan garatu beharreko jarduerak.

- Aholkularitza teknikoa arlo hauetan: hegazti-sektorea, zaldien ugalketa eta higiene-arloa, ugalketaren kontrola eta esnearen kalitate higienikoa.
- Ekonomia zirkularra dinamizatzea Bizkaiko Lurralde Historikoan simaurra eta mindak kudeatzeari dagokionez, aholku ematea Nekazaritza Politika Bateratuaz (PAC, gaztelaniazko sigletan), eta jarduera-lizentziak lortzeko eta Ustiategiak kudeatzeko sistema integrala ezartzen (SIGE, gaztelaniazko sigletan).
- Laguntza teknikoa ematea Bazkalekuak Kudeatzeko Planak idazteko, abeltzaintza-erabilera azpimarratuta (osasuna, identifikazioa edo neguko atseldenaldia, besteak beste), eta hainbat zonaren kudeaketan/administrazioan, Abeltzainen Elkarteek 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren nekazaritza eta inguruneko laguntza-lerroak eskura ditzaten.

Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa bete beharko du Kooperatibak, baita Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hori osatu edo garatuko duten arauetan xedatutakoa ere, hitzarmenaren arabera tratatu eta jaso beharreko izaera horretako datuei dagokienez.

Jarduera horiek garatzean, LORRA S C sozietateak hitzeman du ez duela hizkuntza sexistarik erabiliko, ez duela bereizkeriazko elementurik izango hizkuntza eta irudiaren erabileran, eta pertsonei buruz sortuko den edozein estatistikatan datuak sexuen arabera bereizi beharko dituela.

LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA ez du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan jasotako dirulaguntzen onuradun izateko debekurik. Era berean, jarduera hauen garapenean hizkuntzaren erabilera ez-sexista egin beharko da, hizkuntzaren eta irudiaren erabileran diskriminazio elementurik kontuan hartu gabe, eta datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira pertsonei buruz sortuko den edozein estatistikatan.

Emakume eta gizonen arteko berdintasun gaietan, erakundeak honela burutuko ditu diruz lagundutako ekintzak:

- LORRA SOCIEDAD COOPERATIVAK emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatuko du lanpostuak zehaztean, lanpostuak

eskuratu, kontratatu eta iraungitzean, lanbide-sailkapenean, laneko sustapen, prestakuntza, segurtasun eta osasunean, lansari-politikan, erantzukidetasunean eta bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitean, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolaketan, eta sindikatuaren ekintzan, ordezkaritzan eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, egokiak eta ez diskriminatzaileak bermatuko dituela.

- LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA zainduko du emakume eta gizonen trataera, protagonismoa eta balorazioa baliokideak direla, eta balio hauek dituen irudia sustatuko du: berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna, eta rol-aniztasuna eta genero-identitate aniztasuna, bai informazio idatzian, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, formalean eta informalean, bai proiektua edo jarduera burutzearekin sortutako edo loturiko materialetan.

Bi hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, LORRA SOCIEDAD COOPERATIVAk euskara erabiliko du diruz lagundutako jardueraren ondorio diren jendaurreko esku-hartze guztietan. Era berean, sozietate kooperatiboaren jarduerak herritarrei jakinarazteko erabiliko diren liburuxka, kartel edo bestelako euskarrietan bi hizkuntza ofizialak erabilko dira.

3.- ERAKUNDEAREN DATUAK

IZENA: **LORRA SOCIEDAD COOPERATIVA**

IFK: **F-48.212.880**

EJSN : **6920**

KOKALEKUA: **LEZAMA (BIZKAIA)**

HELBIDEA: **GARAIOLTZA AUZOA 23 - 48.196 LEZAMA**

KONTAKTUA: **Tel.: 94 455 5063 - Faxa: 94 455 6245**

lorra@lorra.eus **www.lorra.eus**

4.- AURKEZPENA

LORRA S.Coop. lehen mailako kooperatiba bat da, irabazi-asmorik gabea, eta horren erakunde elkartuak pertsona juridikoak dira, hala nola nekazaritza-ekoizleen edota abeltzainen elkarteak, nekazaritzako elikagaien kooperatibak eta erakunde laguntzaileak.

Lehen urratsak 1984an eman bazituen ere, 1986ko azaroan eratu zen KUDEAKETA ZENTRO LORRA Sdad. Coop., Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritzako elikagaien sektoreari zerbitzu administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak emateko helburuz.

Sektoreko lau elkartek eratu zuten bazkide gisa, eta horiei beste batzuk gehitu zaizkie.

Gaur egun, 33 elkarte, 8 kooperatiba eta pertsona bazkide laguntzaile 1 biltzen ditu, eta proiektuan Bizkaiko 4.000tik gora ekoizle elkartzen ditu, nork bere jardueran profesionalizatzeko helburuarekin: esnetarako behi-aziendako abeltzainak, haragitarako behi-aziendakoak (bertako eta atzerriko arrazak), ardi-aziendakoak, ahuntz-aziendakoak, untxizainak, hegaztizainak, zaldi-hazleak (pottokak, haragitarako zaldiak eta aukerako arrazak). Ortuzainak, frutazainak, txakolingileak, nekazaritza ekologikoko ekoizleak, Gernikako indaba ekoizleak, sagardogileak eta basogintzakoak.

Sozietatearen xedea 39 urtez berbera izan bada ere, egokituz joan da, erakunde gehiago bazkide egin ahala eta, hortaz, premia berriak sortu ahala, gero eta heterogeneoagoak direnak, LORRAren bazkide eta bezeroak gero eta anitzagoak direlako.

2017an egindako Gogoeta Estrategikoan, sozietatearen MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK eguneratu ziren eta, hortaz, berriz zehaztu ziren:

MISIOA

"Bizkaiko nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresaburuak sustatzea eta horien elkartze-mugimendua antolatzea, eta gure bazkide eta bezeroen behar administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak aurreikusi eta horietaz arduratzea".

IKUSPEGIA

"Bizkaiko nekazaritzako elikagaien sektorearen eraldatze enpresariala lideratu nahi dugu, eta erreferente izan zerbitzu administratibo, tekniko eta ekonomikoak ematen, eta zerbitzu horien kudeaketan eta gure bazkide eta bezeroen arretan bikaintasuna lortu, sektoreak Bizkaiko gizarte zibilari dakarzkion ekarpenak gehiago aintzat har daitezen; hori guztia, erakundeko pertsonen inplikazioa handiena izanda".

Era berean, LORRAn dihardugunok gure **BALIOAK** egokitzen ditugu, eta horiek bikaintasun printzipioekin bat datoz, eta gure bazkide eta langileen balorazioen menpe jartzen ditugu.

Hortaz, hausnarketa-prozesu horretan, erakundearen balioak,

lehenagoko gogoetan zehaztutakoak, ezaugarri hauetan bildu ditugu:

- BEZERO, BAZKIDE ETA PERTSONEN GOGOBETETZERA BIDERATZEA
- PROFESIONALTASUNA ETA ZERBITZURAKO PREST
- ALDAKETETARA EGOKITZEKO GAITASUNA
- KOHESIOA ETA TALDE-LANA
- ETENGABEKO HOBEKUNTZA ETA BERRIKUNTZARAKO KEZKA ERAKUNDEAREN ARLO GUZTIETAN
- KONPROMISOA, HURBILTASUNA, KONFIANTZA, ZINTZOTASUNA ETA LEIALTASUNA ERAKUNDEAREKIN ETA INTERES TALDEEKIN
- ZUZENTASUNA ETA KOHERENTZIA JOKABIDEETAN ETA BEZERO ETA BAZKIDEEKIKO HARREMANETAN
- INPLIKAZIOA ETA ERANTZUKIZUN SOZIALA INGURUNEAREKIN

"Gure konpromiso leiala gure zereginak era profesional, hurbilean eta zintzoan egiteko, gure erakunde bazkideen eta bezeroen aniztasuna aintzat hartuta, horien gogobetetasuna eta erakundeko pertsonena lortzeko, egunez egun gure kudeaketa eta ingurumen eta gizartearekiko elkarrekintza hobetzeko arduratuta".

LORRA S. Coop.-ren **ZEREGINA** honetan datza: euskarri izatea, erakunde juridiko elkartuen jarduerak hoberen gara daitezen, eta gure erakunde elkartuetako bazkideei eta Bizkaiko nekazaritzako bestelako profesionalei zerbitzu administratiboak, teknikoak eta ekonomikoak ematea.

2025eko ekitaldian hau izan da LORRA S.Coop. sozietate kooperatiboaren erakunde bazkideen errolda:

ABELANTZUNTZA ARLOA
POLIGASTRIKOEN TALDEA

BIFE BIZKAIA FRISIAR ELKARTEA

LAHE (ACOL) LATXA ETA KARRANTZAR ARRAZETAKO ARDI HAZLEEN ELKARTEA

BBPE (ASGAPIR) BIZKAIA BEHI-AZIENDA PIRINIARRAREN ELKARTEA

BLAE LIMOUSINE BIZKAIA BEHI-AZIENDAREN ELKARTEA

BBE BLONDE BEHI-AZIENDAREN ELKARTEA

BITEL BIZKAIKO TERREÑO ARRAZAKO HAZLEEN ELKARTEA

BIMOEL BIZKAIKO MONTXINO ELKARTEA

BIBEL BIZKAIKO BETIZU BEHI-AZIENDAREN ELKARTEA

BIAGE BIZKAIKO AZPIGORRI ARRAZAKO AHUNTZEN HAZLEEN ELKARTEA

BISAREL BIZKAIKO SASIARDI ARRAZAKO ARDIEN HAZLEEN ELKARTEA

AVASCANE EUSKADIKO KARRANTZAR MUTUR BELTZ ARDIEN HAZLEEN ELKARTEA

MONOGASTRIKOEN TALDEA

BIUNEL BIZKAIKO UNTXIZAINEN ELKARTEA

ACCBI BIZKAIKO HAUTA ARRAZAKO ZALDI HAZLEEN ELKARTEA

BIZKAIKO POTTOKA BIZKAIKO EUSKAL PONEY ARRAZAKO ZALDIEN HAZLEEN ELKARTEA

BHE (AVI) BIZKAIKO HEGAZTIZAINEN ELKARTEA

BIZEL EUSKAL HERRIKO MENDIETAKO ZALDIZAINEN BIZKAIKO ELKARTEA

ASBIZBUEN ENKARTERRIKO ASTOZAINEN ELKARTEA

EOALAK EUSKO OILO ETA ANTZARREN HAZITZAILEEN ELKARTEA

LANDARE EKOIZPEN ARLOA

BIHOEL BIZKAIKO ORTUZAINEN ELKARTEA
BIALKA BIZKAIKO FRUTAZAINEN ELKARTEA
BIALTXA BIZKAIKO TXAKOLINGILEEN ELKARTEA
EKOLUR BIZKAIKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZA EKOLOGIKOAREN ELKARTEA
BIZK.SAGARDOGILEAK BIZKAIKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA
GERNIKAKO INDABA GERNIKAKO INDABAREN EKOIZLEEN BIZKAIKO ELKARTEA
BASOGINTZA ELKARTEA BIZKAIKO BASOGINTZA ELKARTEA

NEKAZARITZAKO INGURUMEN ARLOA

ITZINA OROZKOKO ABELTZAINEN ELKARTEA
GORBEIAZPI ZEANURIKO ABELTZAINEN ELKARTEA
ARTAIO TURTZIOZKO ABELTZAINEN ELKARTEA
AGA ABADIÑOKO ABELTZAINEN ELKARTEA
AGAMUGA GALDAMESKO ABELTZAINEN ELKARTEA
POZUZARRETA POZUZARRETAKO ABELTZAINEN ELKARTEA
DIMA DIMAKO ABELTZAINEN ELKARTEA
ALONSOTEGI ALONSOTEGIKO ABELTZAINEN ELKARTEA

Guztira, 2025a ixtean, erakunde hauek zeuden: 42 erakunde bazkide, 33 elkarte eta 9 kooperatiba (horietako bat, pertsona bazkide laguntzailea).

2025eko ekitaldia ixtean, ez da aldaketarik gertatu hasierako erroldan, eta **2025a ixtean, erroldan 42 erakunde bazkide** zeuden.

KOOPERATIBAK ARLOA

GUVACGUVAC S.COOP.(PENTSUAK ETA HORNIGAIAK)
MIBAMIBA S.COOP. .(PENTSUAK ETA HORNIGAIAK)
ZAMUDIOZAMUDIO S.COOP. (HORNIGAIAK)
LEZAMALEZAMA S.COOP. .(PENTSUAK ETA HORNIGAIAK)
GARAIAGARAIA S.COOP. (ORTUARI ETA FRUTEN ZENTRALA)
MUNGIAMUNGIA S. COOP. (HORNIGAIAK)
SODUPE SODUPE S.COOP: (HORNIGAIAK)
BARRENETXEBARRENETXE S.COOP. (EKOIZPENA)

BAZKIDE LAGUNTZAILAK ARLOA

LABORAL KUTXA

GOBERNU ORGANOAK–ARTEZKARITZA KONTSEILUA

KONTSEILUBURUA:

Juan Luis Irazola Fundazuri jauna — ASGAPIR

KONTSEILUBURUORDEA:

Gorka Irazabal Hidalgo j auna — E.K.O.L.U.R.

IDAZKARIA:

Idoia Zarate Torrontegi andrea — ZAMUDIO, S.C

ALTXORZAINA:

Maite Intxausti Totorikaguena andrea — BIALKA.

KONTSEILUKIDEAK:

Pedro Jesus ZaballaAbans jauna — B.L.A.E..

Andoni Bringas Crespo jauna — LABORAL KUTXA.

Gorka Sanemeterio Letonaj auna — *ITZINA*

Juan I. OlabarriaAspuruj auna — *BIZKAIA POTTOKAS*

Ikerne Zuluaga Zamalloa andrea — LORRA.

Isabel Gárate Alberdi andrea — LORRA.

AHOKULARI JURIDIKOA.- *Asier Loroño Mugarza jauna*

ZUZENDARI - KUDEATZAILEA.- *Martín Uriarte Zugazabeitiaj auna*

ORGANIGRAMA



5.- KOKAPENA ETA DENBORALIZAZIOA

LORRA S.Coop. sozietate kooperatiboaren jarduera-eremua Bizkaiko

lurralde historikoa da, eta erakunde juridiko elkartuei (nekazaritzako elkarteak eta kooperatibak), erakunde elkarteetako (nekazaritzako ustiategiak) bazkideei eta Bizkaian erroldatutako nekazaritzako enpresaburuei zerbitzu administratiboak, teknikoak edota ekonomikoak ematen dizkie, eskatuz gero.

LORRAk eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Sailak sinatu duten lankidetza-hitzarmenak, txosten honen xede denak, jarduera-eremu berbera du.

Lankidetza-hitzarmenaren denboralizazioa 2025eko ekitaldiari dagokio; izan ere, txostenaren edukiak ekitaldi horretan garatutako jarduerak bildu ditu.

6.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA SUSTATZEKO SAILAREKIN SINATUTAKO HITZARMENAREN BABESPEAN 2025EAN EGINDAKO JARDUEREN AZALPENA

LORRAk eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Sailak sinatu duten lankidetza-hitzarmenaren babespean, LORRAk jarduera hauek egin ditu:

6.1.- ZERBITZU OROKORRAK

6.1.1.- LORRAREN ADMINISTRAZIO OROKORRA, BARNE ANTOLAKETA

LORRA S. Coop. sozietate kooperatiboak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Sailak 2025eko ekitaldirako sinatu duten lankidetza-hitzarmenaren babespean LORRAk erakunde elkartuei eta Bizkaiko nekazaritzako ustiategiei ematen dizkien zerbitzuak egin ahal izateko, sozietate kooperatiboak hainbat gastu egin ditu materialez eta zerbitzuez hornitzeko, horretarako gai izateko, eta, halaber, sozietatearen barne-kudeaketa burutu du estrategian zehaztutako helburuen arabera.

Horren haritik, LORRAk erakundea kudeatzen du; izan ere, 2005eko ekitalditik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren PREMIE programa ezarri du, EFQMren araberako **kudeaketa bikaineko tresnak**

sartzeari buruzkoa. Harrezkerotik, hori garatzen ari da, eta 2009an **EUSKALIT** Euskal Fundazioan –**kudeaketan bikaintasuna lortzeko Kudeaketa Aurreratua** sustatzen duena– sartu zen, eta 2011n, Bikaintasunarekiko Konpromisoaren Diploma jaso zuen, eta 2013an, hori berritu, eta, 2016an, Kudeaketa Aurreratuaren Diploma.

Era berean, LORRAk, 2008tik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren XERTATU-ADI programa, **Enpresa Erantzukizun Korporatiboari** buruzkoa, ere erabiltzen du.

2021ean, Berdintasun Plan bat ezartzen amaitu zuen LORRAk, eta ekitaldi horretan zehaztutako diagnostikoa eta ekiteko proposamenak formalizatu zituen, eta 2022ko ekitaldiko Kudeaketa Planean ekintzak sartu zituen.

Halaber, LORRAk, 2020an, **diagnostiko bat egin zuen erakunde barruan enpresaren laneko bide-segurtasunaz**, eta horren ondorioz, Innovabide sarean sartu zen, enpresetan laneko bide-segurtasunaren kudeaketa hobetzeko eta elkartze- eta sektore-inguruneko enpresak zeregin horretan laguntzera bultzatzeko. Hortaz, 2021etik 2025era bitartean, LORRAk ibilgailuak berritu ditu, eta 5 gasolina-ibilgailuren ordez 5 ibilgailu hibrido (elektrikoak/gasolina) sartu ditu.

Halaber, **LORRAk, ingurumenaz kezkatuta eta horrekin konpometituta,** 2023an **32,7 Kwp-ko instalazio fotovoltaiko bat** instalatu zuen Aldundiak lagatako lokalaren estalkian eta baimen guztiak izanda, EEEkin batera finantziatuta eta ASG aholkularitzaren bidez. Instalazio fotovoltaiko horrek 43,28 tonako ikatza aurreztu du 2025a ixtean, 51,40 tona CO^2 saihestu dira eta 71 zuhaitz landatu dira; 2025ean 13,78 Mwh autokontsumo fotovoltaiko eta 22,84 Mwh energia berriztagarri sortu ditu, sarera isurita, eta autosufizientzia-maila % 37,63koa izan.



LORRAK EUSKALITen Kudeaketa Aurreratuaren Ereduaren arabera kudeatzen du erakundea, eta bere jarduera zehazten duten prozesuen kudeaketa oinarri hartuta lan egiten du. Horren arabera, PROZESUAREN MAPAk prozesu estrategiko batzuk zehaztu ditu (Management, Pertsonak eta Berrikuntza), Laguntzarako beste batzuekin batera (Administrazio Orokorra eta Komertziala), eta horiek beharrezkoak dira bazkideei eta bezeroei ZERBITZUAK EMATEKO Prozesuan kudeatutako zerbitzuak garatzeko.

Hortaz, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Sailarekin sinatu duen hitzarmenarekin hartutako konpromisoa gaitasunez burutzeko LORRAk garatu duen jarduera guztien xehakapenak

erakutsi digu, jarraian adieraziko den grafikoan aurkeztuko denez, ondoren zerrendatuko diren zereginak egiten emandako denbora ezinbestekoa baita hitzarmenean eskuratutako konpromisoak modu arrakastatsuan garatu ahal izateko: Management lanak (LORRA kooperatibaren beraren kudeaketa, artezkaritza-kontseiluak, batzordeak Administrazioarekin hitzarmena kontrolatzeko,…), Pertsonak Kudeatzea (erakundeko langileak prestatu eta biriziklatzeko planak), Berrikuntza Kudeatzea (konponbideak bilatzea bazkideek eta bezeroek proposatutako beharrei…), zeregin komertzialak (produktu eta zerbitzu berriak kudeatzea…) eta kooperatibaren administrazio orokorra (kontabilitate-kudeaketa, lan-kudeaketa, administrazio-kudeaketa eta hornikuntzak).

Prozesu bakoitzean emandako % (45.022 ordu, 2025ean)



Enpresaren egituran eta antolaketan emandako orduak Zerbitzu Orokor gisa erantsi zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Sailarekin batera finantzatzea eskatutako hitzarmenari.

2025eko ekitaldian zeregin horietan parte hartu duten pertsonak; antolaketa eta kudeatzailetza lanak egiteko arduraldia (eta Management Prozesu eta Zerbitzu ematearen arduraduna), goi-zuzendaritzako kontratudun kudeatzaileak egindakoa eta prozesuburuek antolaketa-lanak egiten dituztenean; kooperatibaren soldapekoak, atalburu kategoriarekin, hala nola Berrikuntza Prozesuaren arduraduna, Administrazio Orokorreko Prozesuaren arduraduna; Pertsonak Kudeatzeko Prozesuaren arduraduna eta Prozesu Komertzialaren Prozesuaren arduraduna.

Era berean, enpresaren eguneroko kudeaketan emandako orduak: administrazioa, harrera, telefono-arreta, kontabilitate-zerbitzua, hornigaien kudeaketa, giza baliabideen kudeaketa, besteak beste. Horiek guztiak funtsezkoak dira erakundea behar bezala garatzeko eta zerbitzuak burutu ahal izateko, zeinetan hauek parte hartu duten: Administrazio-arduraduna eta Administrazio Saileko 3 administrari; Kontabilitate Saileko burua, Lan Hamarremanen Graduko 2 teknikari eta kontabilitate-administrari 1.

Azkenik, plantilla teknikoki eguneratua eta gaitua egon dadin **langileak prestatu eta birziklatzeko planari** dagokionez, enpresak giza kapitalean inbertitzen du, eta, horretarako, urtero Prestakuntza Plan bat

diseinatzen du. 2025ean, **840,75 ordu** eman dira, hots, plantilla prestatu eta birziklatzeko ordu guztien **% 1,86.**

6.1.2.- ADMINISTRAZIO-INFORMATIZAZIO ZERBITZUA

Zerbitzu horretan, 2025eko ekitaldian, gure erakunde elkartuek eta bezeroek eskatutako zirkularrak, txostenak, memoriak eta agiriak egin eta zabaldu dira, eta publizitate eta sustapenerako kartelak eta liburuxkak diseinatu eta egin dira.

Halaber, abeltzaintzako enkanteak –presentzialak eta online– antolatzen lagundu da, Lorra S. Coop. kooperatibak emandako zerbitzuetan gertatu den bezala.

Abeltzain elkartuen esnetarako eta haragitarako behien, zaldien, ahuntzen eta ardien arraza hautatuen gaineko datuak informatizatu eta eguneratu dira. Horiei eman ohi zaizkien zerbitzuen barruan dago Liburu genealogikoa, identifikazioa eta ugalketa kudeatzea eta kalifikatzea, ondoren abeltzainentzat txostenak egiteko; halaber, aplikazio horiek kudeatu eta mantzentzeko lanak egin ere.

Elkarte hauentzat lan egin da (*datuak, 2025eko ekitaldia ixtean*):

- **Esnetarako behi-azienda: BIFE** 49 ustiategik esku hartzen dute, eta kopurua 5.476 abelburu ingurukoa da. Lehenago adierazitakoa ez ezik, esnearen kontrola, analisi klinikoen eta errapeko minaren emaitzak ere kudeatu dira.

- **Haragitarako behi-azienda: ASGAPIR**, **BBE**, **BLAE**, **BIBEL**, **BITEL** eta **BIMOEL;** guztiek 208 ustiategi elkartekide biltzen dituzte, 9.410 abelburu, guztira. Arrazen gutun genealogikoak egiten dira. Lehenengo 4 elkarteetan errendimenduak kontrolatzeko (pisaldiak) zerbitzua ere eman da.

- **Zaldi-azienda: BIZKAIKO POTTOKA**, **BIZEL,ACCBI eta ASBIZBUEN**. 132 ustiategi elkartekide guztira, eta 2.105 abelburu. Pottoka arrazan Zaldi-identifikazioko dokumentua (zaldien kartilla) egiten da.

- **Ahuntz-azienda: BIAGE** 23 ustiategi elkartekide guztira, 607 ahuntz.

- **Ardi-azienda: ACOL**, **BISAREL** eta **AVASCANE**. Lehenengoari, gainera, esnearen kontrolaren eta analisien emaitzen informatizazioa ere kudeatu zaio. Guztira, 72 ustiategi elkartekide, 10.061 ardi inguru.

Zerbitzu horretan 4 pertsonak parte hartu dute: administrazio-

arduraduna eta 3 administrari.

Haragitarako behi-aziendako ustiategietan informazioa biltzeko zerbitzua LORRAk eman du: bi pertsona ditu kontratatuta ASGAPIR, BLAE, BBE, BITEL, BIMOEL eta BIBEL elkarteen errendimenduak kontrolatzeko eta haragitarako behi-aziendaren liburu genealogikoa egiteko, eta lan horiek ez ezik, hau ere egin dute: behi-aziendaren lehiaketetan eta azoketan koordinatzaileei laguntza ematea. Latxo ACOL ardi-aziendaren liburu genealogikoa eta errendimenduak kontrolatzeari dagokionez, 2017tik aurrera beraiek kudeatzea erabaki zuten.

6.1.3.- KONTABILITATE ZERBITZUA ELKARTEEI

2025eko ekitaldian zerbitzu hauek eman dira:

"Kontabiltate bikoitza egitea, fakturatzea, zergak ordaintzeko beharrezko txostenak egitea, erabaki ekonomikoak hartzea eta erakunde publikoekin ditugun hitzarmenak justifikatzea."

Eta esandako zerbitzuak, hain zuzen, hauek egiteko eman dira 2025ean:

LORRA S.Coop. kooperatibari dagokionez, zerbitzu horren barruan enpresaren kontabilitatea egin da zehazki, eta ordainketak eta kobrantzak kudeatu dira, emandako zerbitzuak fakturatu dira, aurrekontuak egin dira eta, ondoren, betearazpenen jarraipena egin da. Denboraldi horretan, 2024. urteari dagokion auditoretza egin da, eta BFArekin sinatutako hitzarmenaren justifikazioko kontua, 2024koa ere. Halaber, kudeaketaren bikaintasunean (EFQM) oinarritutako kudeaketa-sistemaren arabera ezarritako prozesuak garatzen jarraitu da, LORRAk 2005etik hartu baitzuen hura kudeaketa-tresnen artean.

LORRAREN BAZKIDE diren erakundeei dagokienez, 2025eko ekitaldian elkarte hauei eman zaie zerbitzua:

- **Abelazkuntza: BIFE,ASGAPIR**, **BLAE**, **AVI**,**BIUNEL**, **ACCBI**, **BBE**, **BIZKAIKO POTTOKA**, **BITEL**, **BIBEL**, **BIMOEL**, **BIZEL**, **BISAREL**, **BIAGE**, **AVASCANE** eta **ASBIZBUEN**.
- **Landare Ekoizpena: BIALTXA**, **BIALKA**, **BIHOEL**, **BIZKAIKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA**, **EKOLUR**, **BASOGINTZA ELKARTEA** eta **GERNIKAKO INDABA.**
- **Nekazaritzako ingurumen-elkarteak: ITZINA** - **GORBEIAZPI**.
- **Kooperatibak Arloa: Coop Lezama** eta **Coop Zamudio**

Elkarte horiei, 2025eko ekitaldian, zerbitzu hauek eman zaizkie:

- Kontabilitatea egitea.
- Kuotak eta zerbitzuak fakturatzea.
- BEZaren araubide orokorreko enpresen (12 enpresa) BEZa ordaintzea, eta 110 ereduaren atxikipenak eta Sozietateen gaineko Zerga ordaintzea (12 enpresa).
- Elkarteetako langileen nominak ordaintzea, baldin badituzte.
- Ordainketa eta kobrantza orokorrak kudeatu eta kontrolatzea.
- Auditoretzetan laguntzea (enpresa 1).
- Aurrekontuak egitea eta, ondoren, betearazpenen jarraipena egitea.
- Basogintza Elkarteak bere langileak dituenez, kontabilitatearen jarraipena eta hori ikuskatu eta aurrekontuak egiten lagundu besterik ez da egiten.

Zerbitzu horretan profesional hauek parte hartzen dute: 6 pertsona: Administrazio Orokorreko prozesuaren arduraduna, Ekonomia Zientzietan lizentziaduna, atalburu kategoriaduna; Lan Harremanen Graduko 2 tituludun, teknikari kategoriadunak; Ekonomia Zientzietan lizentziadun 1, teknikari kategoriaduna; eta 2 kontabilitate-administrari, ofizial administrari kategoriadunak.

6.1.4.- PROIEKTU ETA ERAIKUNTZEN ZERBITZUA

Zerbitzu honetan, nekazaritzako eta abeltzaintzako eraikuntzei eta azpiegiturei buruzko aholkularitza ematen da.

Proiektuen kabineteari dagokionez, zerbitzu hauek eskaintzen dira: nekazaritza eta abeltzaintzako proiektuak, obra zuzendaritzarako aurreproiektuak eta jarduera-proiektuak diseinatzea, nekazaritza txostenak, balorazioak eta erabilera-aldaketei buruzko txostenak egitea, jarduera-lizentzia lortzeko txostenak eta edozein motatako nekazaritza txostenak egitea, toki- edo lurralde-administrazioak edota Autonomia Erkidegoko administrazioak eskatuta. Eskatzen duen Bizkaiko edozein nekazaritza enpresaburuk eskatuta.

2025eko ekitaldian zehar, Bizkaiko hainbat nekazaritza-enpresak eskatutako berrogei lan inguru egin dira. Abeltzaintzako edo nekazaritzako azpiegituren proiektuak dira, profesional eskudunek eta jarduera eremuetan espezializatutakoek diseinatu dituztenak.

2025eko ekitaldian, hauek burutu dira: **9 egikaritze-proiektu, jarduera-memoria 1, 0 obra-amaierako ziurtagiri, 4 oinarrizko proiektu, erabilera-aldaketari buruzko txosten 1 eta era askotako**

17 txosten agronomiko.

Parte hartu zerbitzu honetan: Nekazaritzako ingeniari titulazioa duen proiektuen ataleko burua.

6.1.5.- GASTU OROKORRAk

Hitzarmenaren babespean, LORRA kooperatibak bere jarduera garatzeko dituen gastu orokorren **% 80** justifikatu da.

Hortxe, gastuak, arloen arabera:

- LORRAren eta erakunde elkartuen arteko zirkularizazioen mailinga.
- Instalazioak eta ekipamendu informatikoen mantentze-lanak.
- Errentamenduak.
- Aseguruak (lokala, RC zerbitzuak, ibilgailuak, bestelakoak…).
- Garraioak (mezularitza-zerbitzua,..)
- Banku-zerbitzuak (finantza-gastuak).
- Hornidurak (komunikazioak, elektrizitatea, ura, zaramak, erregaiak,…).
- Komunikazio Plana (SPB gabinete periodístico).
- Sustapena eta publiziatea ikus-entzunezko baliabideetan eta idatzizkoetan (*Deia*, Onda Vasca, marketina, merchandising-a, bestelakoak,…).
- Artezkaritza Kontseilura bertaratzeko dietak.
- Zerbitzu osagarriak (garbiketa, gestoria, auditoria, zerga-aholkularitza,…).
- Bestelako kudeaketa-gastuak (bulegoko materiala, liburutegia, Euskara Plana, laneko arriskuen prebentzioa, bestelakoak,..).

6.1.6.- HITZARMENAREN GASTUAK ETA ZERBITZU OROKORRENGATIK JASOTAKO DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Atal honetan, lehenago azaldutako zerbitzu eta lanei dagokienez, 2025eko ekitaldirako Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko Sailak eta LORRAk sinatu duten hitzarmenari egotzi zaizkionak, gehienez % 80ko dirulaguntza dutenak, hauek dira, bai Pertsonal Gastuari, bai Gastu orokorrei dagokienez:

	GASTUA		
	ABELAZK.	LANDARE EKOIZPENA	GASTUA
Pertsonal gastuak	274.012,94	192.802,21	**466.815,15**

Gastu orokorrak	109.232,42	53.245,91	**162.478,33**
ZERB. OROKORRAK GUZTIRA	383.245,36	246.048,12	**629.293,48**

	DIRUL. JUSTIFIKATUA		
	ABELAZK.	LANDARE EKOIZPENA	DIRUL. JUSTIFIKATUA
Pertsonal gastuak	207.250,59	142.282,02	**349.532,61**
Gastu orokorrak	87.385,94	42.596,73	**129.982,67**
ZERB. OROKORRAK GUZTIRA	294.636,53	184.878,75	**479.515,28**

	DIRULAGUNTZAREN MUGA		
	ABELAZK.	LANDARE EKOIZPENA	DIRULAGUNTZAREN MUGA
Pertsonal gastuak	198.123,05	136.705,30	**334.828,35**
Gastu orokorrak	83.537,37	40.927,17	**124.464,54**
ZERB. OROKORRAK GUZTIRA	281.660,42	177.632,47	**459.292,89**

6.2.- ABELAZKUNTZAKO ZERBITZUAK

6.2.1.-HAZI MANTENTZE INFORMATIKOA

Atal honetan, 2025eko ekitaldian, BFArekin sinatutako lankidetza-hitzarmena dela eta, **HAZI Fundazioaren konturako Sare Sektoriala mantentzeko Kanpo Zerbitzuak egotzitako gastuaren justifikazioa aurkeztu da, baita Abelazkuntzako (esnetarako behien, haragitarako behien, ardien, zaldien eta Sare Sektorialaren Kudeaketa Teknikoa) programa informatikoena ere.**

6.2.2.- ELKATEAK KOORDINATZEKO ZERBITZUA

Nekazaritzako ingurumen-arloko elkarteak:

(ITZINA, GORBEIAZPI, AGA, AGAMUGA, ARTAIO, POZUZARRETA , DIMA eta ALONSOTEGI).

Nekazaritzako ingurumen-arloko koordinazio-zerbitzu horiek guztiak LORRAren izendunaren bidez batera finantzatu dira.

2025eko ekitaldian, Hitzarmenaren babespean LORRAren elkarte bazkideek egindako edo horien koordinatzaileek ikuskatutako jardueren xehetasuna hau da:

Mendiko larreak erabili eta kudeatzeko tokiko Abeltzainen Elkarteak koordinatzea da egindako lana:

Gaur egun **LORRA S.Coop.** sozietate kooperatibaren bazkide diren elkarte hauei eman zaizkie zerbitzuak 2025eko ekitaldian:

- Mendiko abeltzainen elkartea - **ITZINA** (Orozko)
- Mendiko abeltzainen elkartea - **GORBEIAZPI** (Zeanuri)
- Mendiko abeltzainen elkartea - **A.G.A**. (Abadiño)
- Mendiko abeltzainen elkartea - **ARTAIO** (Truzios)
- Mendiko abeltzainen elkartea - **POZUZARRETA** (Oiz)
- Mendiko abeltzainen elkartea - **AGAMUGA**. (Galdames)
- Mendiko abeltzainen elkartea -**DIMA**. (Dima)
- Mendiko abeltzainen elkartea– **ALONSOTEGI**(Alonsotegi)

Elkarte hauei ere eman zaizkie zerbitzuak:

- Mendiko abeltzainen elkartea - **Artzentales.**
- Mendiko abeltzainen elkartea –**AREATZA**-**UPOKOLUPETZA**
- Mendiko abeltzainen elkartea – **UBIDEA**-**BASOBALTZ**
- Mendiko abeltzainen elkartea - **Sta. Cruz** (Artzentales)
- Mendiko abeltzainen elkartea - **Karrantza.**
- Mendiko abeltzainen elkartea - **Karrantzako Mendia**.
- Mendiko abeltzainen elkartea - **Muskiz**.
- Abeltzainen elkartea - **Barakaldo**.
- Abeltzainen elkartea - **Zalla- La Brena**
- Abeltzainen elkartea - **Balmaseda**-**ARBALIZA**

2025eko ekitaldian lan hauek egin dira:

- Bizkaiko onura publikoko mendia elkarrekin kudeatzen eta aprobetxatzen duten abeltzainen elkarteentzako 19 laguntza-espediente izapidetu dira.
- Larreen Bost Urteko Planaren jarraipena (2024-2028) eta 2025erako jarduera plana 19 abeltzain elkarteentzat.
- Bilerak udalekin, Mendi Zerbitzuarekin eta Nekazaritza Zerbitzuarekin, egindako jarduerei buruzko informazioa kontrolatzeko.
- Udaletako larreen batzordea (Orozko, Balmaseda,…).
- Estatutuak edota elkarteen erregistroa eguneratu dira.
- Koordinazio-zereginak: bilerak, aktak egitea…
- Elkarte bazkideen Jarduera Memoriak eta Batzar Nagusia.
- Oinarrizko Errenta Laguntza eta artzaintza ekoerregimena kobratzeko aholkularitza.
- Herri-azalera abeltzain elkartuei banatzea.
- Bazkideen datu baseak mantentzea, zirkularrak bidaltzea, kuotak..
- Bestelakoak.

Zerbitzu horretan pertsona hauek parte hartu dute: Nekazaritzako ingeniari tekniko tituludun bat, teknikari kategoriaduna.

6.2.3.- ABELAZKUNTZAKO ZERBITZI TEKNIKOA

6.2.3.1.- ZERBITZU TEKNIKOA ZALDI-AZIENDARENTZAT

2025eko ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren arabera, zaldi-aziendaren ugaltze-zerbitzua eman zaio Bizkaiko Hauta Arrazako Zaldi Hazleen Elkarteari **(ACCBI**). Horrek 16 hazle biltzen ditu.

2025eko ekitaldian 205 bisitaldi egin dira ACCBIren 10 ustiategietan.

Zerbitzu horretan albaitari kliniko lizentziadun batek parte hartu du. LORRAk azpikontratatzen ditu haren zerbitzuak.

6.2.3.2.- ZERBITZU TEKNIKOA HEGAZTI-HAZKUNTZARENTZAT

2025eko ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren arabera, **hegazti-ustiategietan salmonella autokontrolen zerbitzua eman da, hazitarako txiten osasun-jarraipena egin da, ustiategietan biosegurtasun-neurriak egiaztatu dira, harremanak izan dira laborategiekin (analisi klinikoak, txertoak,...); laginketak (odola, gorozkiak, pentsua, ura), nahitaezkoak eta borondatezkoak, egin dira ustiategietan; Higiene Jardunbide Egokien Gida ezartzeko jarraipena egin da, 1999/74/EB Zuzentarauaren arabera; *ante mortem* ikuskapenak eta abereen mugimenduaren gidak egin dira, eta laguntzak kudeatu dira.**

2025eko ekitaldian AVIko 15etik 1era arteko ustiategi bisitatu dira.

Zerbitzu horretan albaitaritzako lizentziadun batek parte hartu du. LORRAko pertsonaleko kidea da.

6.2.4.- EKONOMIA ZIRKULARRAREN DINAMIZAZIOA SIMAUR ETA MINDEN KUDEAKETAN, NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUAZ (PAC) JARDUERA LIZENTZIETAN AHOLKU EMATEA (515/2009 DEKRETUA) ETA USTIATEGIEN KUDEAKETA SISTEMA INTEGRALA EZARTZEA (SIGE)

2025eko ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenaren arabera, **Nekazaritza Politika Bateratuaz (PAC, gaztelaniazko sigletan) aholku emateko zerbitzua eman da, baita Enkarterrin simaur eta mindak kudeatzeari buruz ere.**

- **Jarduera-lizentziak:**

Otsailaren 25eko 50/2025 Dekretuaren arabera, zeinak 515/2009 Dekretua (nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien higiene- eta osasun-baldintzak xedatu zituena) ordezten duen.

Dekretu hori argitaratu aurretik ustiategi dezente zegoenez, Dekretuan epe bat ezarri da, lizentziak modu ordenatuan eman daitezen.

Aipatzekoa da kasu batzuetan izapideak denbora luzez geldirik daudela, URAk eta udalek egiaztapena atzeratu dutelako.

2025ean, araudi berri bat aurreko dekretua jarraitzeko garatzen aritu denez, interes gutxi egon da (edo batere interesik) jarduera-lizentziak eskatzeko. Aipatzekoa da kasu batzuetan izapideak denbora luzez geldirik daudela, URAk eta udalek egiaztapena atzeratu dutelako.

2025ean, 3 jarduera-lizentzia eta lizentziak emateko aurretiazko komunikazio egin dituzte LORRAN horretarako gaitutako nekazaritza-ingeniariek.

Karrantzako minden instalazioa: proposamen bat aurkeztu da Karrantza Haranean biometano-instalazio bat eraikitzeko. Horren sustatzaileak hauek dira: Aurea Green Gas, AUREA CAPITAL DEVELOPMENT sozietateko partaide (Aurea Capital Partners-en holding-a, azpiegitura berriztagarri eta jasangarriekin loturiko greenfield garapeneko jarduerak xede dituena), MARCOS QUEVEDO (enpresaren sorrerako, negozio-garapeneko eta kudeaketa estrategikoko jardueren buru) eta GAS & GO (gasa eta ibilgailuentzako gas naturala (GNV, gaztelaniazko sigletan) konprimitzen espezializatuta dagoen ingeniaritza, AGGren bazkide teknologikoa).

Lorrak, 2025ean, bilerak egin ditu sustatzaileekin eta proiektu horretan parte hartu nahiko luketen abeltzainekin. Halaber, sortuko diren kontuak dinamizatu eta horiei erantzungo die.

Izan ere, bisita horietan, instalaziora urtean instalaziora 65.000 tona behi-aziendaren minda baino gehiago entregatzeko konpromisoa lortu da. Kopuru hori nahikoa da proiektuaren hurrengo fasea abiaraz dadin. Hasieran 27 abeltzainek adierazi zuten interesa, eta 2.200 behi heldu ingururen minda ekarri dute.

Instalazioak eskatu ahalako ibilbide eta txanda batzuen bidez bilduko ditu mindak, eskatu ahala, eta ondu ondoren, hiru produktu-mota egongo dira aukeran abeltzaintzan erabiltzeko:

- Digestatoa formatu erdilikidoan.
- Digestato bereizia eta konpostatua etzaleku hotzerako.
- Ongarri organiko komertziala.

AGG-k 2025ean garatu beharreko proiektu orokorra atzeratu egin da, hasierak sustatzaileek proiektua Goldman Sachs-eko sozietate bati saldu baitiote (https://www.goldmansachs.com/worldwide/spain/).

Sozietate kudeatzaile hori, Verdalia izenekoa (https://es.linkedin.com/company/verdaliabio), 2023an eratu zen biometano-instalazioak kudeatzeko:

Verdalia Bioenergía eragile lider bilakatu nahi da trantsizio energetikoan, biometano-instalazioak garatzea, erostea eta kudeatzea helburu izanda. Verdalia 2023an sortu zuen Goldman Sachs Infrastructure Funds-ek, eta horren exekutibo nagusiak Fernando Bergasa eta Cristina Ávila dira

Deskarbonizazioa, ekonomia zirkularra eta Europako segurtasun energetikoa lortzeko, Verdaliaren asmoa da datozen 4 urteetan 1.000 milioi euro baino gehiago inbertitzea.

- Sektorea: energia berriztagarria sortzea.
- Enpresaren tamaina: 11 eta 50 langile artean.
- Egoitza: Madril, Madrilgo Erkidegoa.
- Mota: finantzazio pribatua.
- Eratze-urtea: 2023a.

2025ean, hainbat bilera egin dira enpresa berriaren kudeatzeileekin (Verdalia-rekin eta Enerlan Solutións ingeniaritza-enpresarekin).

- 2025/11/06an: bilera Verdalia-Enerlan-ekin, proiektuaren eboluzioaz aritzeko.

- 2025/11/07: bilera Dexpu SL-ekin (garraio-operadorea).

Bilera horiek ez ezik, telefono bidez kontsultak ere egin dira, bilera informalak, ustatzaileekin eta interesa agertu duten abeltzainekin. Bestalde, hainbat jardueratako (gizendegiak, Harakai, hegazti-hazkuntza, untxi-hazkuntza, esne-industria, beste elikagai-industria batzuk…) beste simaur- eta minda-ekoizle batzuekin izan dira harremanak (guztiak 50-60 km-ko erradio operatiboan), instalaziora lehengaia ekar dezaten edo azpiproduktuak kudeatu diezazkieten.

Bilerak ez ezik, hauek ere egin dira 2025ean:

- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak **Verdalia Bioenergia Karrantza SLU**-ri Ingurumen Baimen Bateratua eman dio (2025eko urtarrilaren 31ko ebazpena, EHAA).

- Baimen hori da Karrantza Haranean, Las Torcachas auzoan, mindak tratatzeko eta hori biometano eta bioongarri organiko bihurtzeko instalazio bat eraikitzeko. Instalazioan, minda eta simaurra bilduko ditu, batez ere

Hareneko behi-ustiategietatik, baita inguruko beste hondakin organiko batzuk ere.

- 2025ean, hainbat saiakuntza eta ikerketa egin dira mindarekin eta simaurrarekin, ondoriozko digestatoaren erabilera eta egokitasuna ongarri gisa eta beste erabilera batzuk egiaztatzeko. Ongarritzeko erabil daitekeen lurra erabiltzeko proiektuak ere egiten ari dira, materialak biltzeko eta abeltzainek ondoren erabiltzeko funtzionamendu-akordioak zehaztu ahal izateko.

- 2026an obrak hastea eta probei ekitea espero da, baita garraio-sistema eta antolaketaren gainerako alderdi teknikoak antolatzea ere, instalazioa lehenbailehen martxan jartzeko.

- **Nekazaritza Politika Bateratuta (PAC, gaztelaniazko sigletan) eta balditzakotasuna:**

Zerbitzu horretan **abeltzaintza-ustiategiari aholkularitza osoa** ematea eskaintzen da, Nekazaritza Politika Bateratua eta baldintzakotasun indartua eta **2023-2027 NPB Berrirako** trantsizioa. 2025ean, bazkide eta bezeroen artean neurri berriak zabaldu dira, baita horien norainokoa, horiei ekiteko modua eta Baldintzakotasun Indartuaren alderdietan hartu beharreko betebeharrak eta konpromisoak ere, eta abeltzaintzan eragina duten Ekoaraubideen aplikazioa, kobrantza osagarri posiblerako.

Bestalde, espedienteak eta eskaera bakarra kudeatzen laguntzeko BFArekin egindako akordioaren ondorioz, abeltzaintzako eta nekazaritzako ustiategien 550 eskaera, eskatutako ataletan (SU, lagapenak, legazioak, etab.).

Zerbitzu horretan, 2025ean, **76 abeltzaintza-ustiategi kudeatu dira,** batez ere, esnetarako behiak, haragitarako behiak eta esnetarako ardiak dituztenak. Ustiategien arabera, eskatu ahala, ekoizpen-kostuak baloratu zaizkie, beste adierazle tekniko-ekonomiko batzuekin batera, baita finantzaketa-izapideak eta izapide administratiboak eta dirulaguntzak lortzekoak kudeatzeko laguntza eman zaie edo Nekazaritza Politika Bateratuari buruzko informazioa eman zaie. Zerbitzu horren barruan berariazko premiak dituzten ustiategien jarraipena ere badago. Zerrendako ustiategi horiez gain, beste ganadutegi batzuek NPB eskubideen kudeaketari, ekonomikoei eta abarri buruz egindako hainbat kontsulta ebatzi dira.

Kudeaketa tekniko-ekonomikoari dagokionez, aholkularitza eman da hauek diruztatzeko: inbertsioak, inbertsio- eta garapen-planak, bideragarritasun-planak, kostuen azterketak, finantza-berregituraketa, dirulaguntzez eta abalak eskatzeaz aholkatzea eta gatazketan bitarteko izatea, besteak beste. **Era berean, laguntzak kobratzeko eta beste**

premia batzuetako kudeaketa administratiboetan zabaldu, aholku eman eta laguntzen da (ziurtagiri digitalak lortzeko, laguntza bera kudeatzeko, eta ez bakarrik aholkularitza-ustiategiei), administrazio publikoek nekazaritza-sektore barruan egin dituzten ekimenetan eta lerroetan.

Oro har, helburua da abeltzainek behar dituzten aholkularitza-premiak betetzea edo horiek erakunde egokietara bideratzea.

Aldi berean, hainbat proiektu eta talde operatibotan parte hartzen da, hala nola Life Beef Carbon izenekoan, haragitarako behien lehiakortasuna eta erresilientzia hobetzeko arloan, edo esnetarako behien R4D izenekoan. Proiektu horietan, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-iraunkortasunaren kudeaketa arduratsuaren alde egiten da.

- **Behi-aziendaren ustiategien kudeaketa orokorrerako sistema (SIGE, gaztelaniazko sigletan):**

Sektoreak azken urteetan izan duen bilakaera, izaera sozial nabarmena, profesionalizazio eta nazioartekotze handia, eta ingurumen- eta klima-arloko erronka berriak –elikagaien segurtasunari, biosegurtasunari eta animalien ongizateari buruzkoak– kontuan hartuta, 2022ko amaieran argitaratu behar izan da 1053/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, behi-aziendako ustiapenak antolatzeko oinarrizko arauak ezartzeko, baita 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratu berriaren esparruan sortutako erronka berriak ere, kontsumitzaileen eskaerekin lotutako ingurumen- eta gizarte-helburu espezifikoen arabera, baita Green Deal-en erronka berriei eta horren ondoriozko estrategiei ere, hala nola «Baserritik mahairako» estrategiari.

Errege Dekretu horren barruan, hainbat betebehar arautu dira II., III. eta IV. taldeetako ustiategietarako, eta horren izena Behi-aziendaren kudeaketa osorako sistema da (SIGE, gaztelaniazko sigletan).

Ustiategi intentsiboak eta erdiestentsiboak dira SIGEak dokumentatzera behartuta daudenak, eta esnetarako behien ustiategiak dira, oro har, talde horietakoak.

Arauak ezartzen zuen 2024ko urtarrilean SIGE horiek osatuta egon behar zutela, baina, hainbat ekimen sektorial eta politikoren ondoren, 2025eko ekainera atzeratu dira, Osasun Plan Integralarekin edo behien trazabilitate elektronikoarekin batera.

